

ARANTZALEA TA ARAIA.

Askotan oi bezela
jun zan ibaiera
bein batean gizon bat
arantz egitera.

Ozta amuaz zuen
ur gaña ikutu,
arai txiki polit bat
zuen arapatu.

Ba'zebilen zintzilik
jauzika amutik;
baña ez zan inolaz
iges egiterik.

Etsi zuen orduan
txit, amofaitxoak;
esaten omen-zuen
amutik gaxoak:
— Zertako nazu zuk ni
txiki, txar, gaztea?
Nola nai dezu nigaz
tripa betetzea?
Urte biko ibaian
utzitzen ba-nazu,
andi eta gizona
atzemango nazu;
orain, berdin, egia
garbi esateko,

ez naiz agin-tarte bat
zuri betetzeko. —

Ba'zuan amofaiak
arazoi-bidea:
gero, bai, izango zuan
ark sasoi ohea;
baña arantzaleak
eskuan arturik,
erantzun omen zion:
— Aurrekoetatik
txit esakun eder bat
ikasi nian nik;
on dek ik aditzea
gaur nere aotik:
"Ohea dek eskuan
"daukaken txoria
"ez egaka dabilen
"egazti aundia".

Oakit zartagira,
oakit ixilik,
geroko usteak ez dik
betetzen sabelik.
Peřejil-tipulakin
olio tartean
igari egingo dek
prejitu artean.

—
Arantzalearentzat
ez da zer-ezanik;
danak gizonarentzat
—Jaunak ala nairik—
bait-dirade abere
txiki eta aundiak,
baita arai danak ere
eta egaztiak;

bestela, bai, izango zan
txit kupigaria
emen ikusten degun
amorai txikia.

Gaizki dirudiena
da arantzalea,
gaxoaz par-egiñaz
ala egotea.





ARTZAIA ETA ARDIAK.

—Atozte, onontz laster
atozte, anaiak—
deadar egiten du
Perutxo artzaiak—;
otso aundi bat dator
mendi oiek bera,
zuzen-zuzen onera
ardiak jatera.—

Ba-dijoaz anaiak
makilak arturik
bildurdez geldi dedin
ardi gabetanik.

Eltzen dirade bada
lertzeko zorian,
bañan ez da ageri
otsorik mendian.

Biurturik ba'daude

lasaiki etxean;
orobat gertatzen da
biaramonean.

Bigarren txalmak dauzka
txit ereztaturik;
urangoan ez dio
inork jaramonik.

Orduan egiazki
otsoa jetxiaz
menditik artaldera,
laister an asi zan
ardirik ederenak
iltzen eta jaten;
ta - okefago zana—
artaldega galtzen.

Gezurra esan zuen
bi bider artzaiak

gero etzioten nai
sinistu anaiak.

—
Gezurtiak egia
baldin ba-du esaten,
gezurtia dalako

etzaio sinisten.

Onela egiten du
beretzat kaltea.
On da beti egia
non-nai esatea.

OTSOA TA ZIGOÑA.

Jakiña da zigoña
dala egaztia,
lepa luze, moko me,
andi, beltz-zuria.

Otso bat zegoan bein
arkume bat jaten,
eta ezur bat zaio
eztañian sartzen.

Itotzera zijoan
ezin aterarik;
ez zedukan iñola
bizi gelditzerik.

Zigoña bat gañetik
zan egan pasatzen;
otsoa intziriaz
asten zaio deitzen.

Ikusten du zigoñak
aia zabalik,

iñolaz ere ezin
asnasa arturik;
jatxitzen zaio, eta
utzirik bildura,
atera bide zion
mokoaz ezura.

Zigoña an dago pozez
beterik guztia,
itxodoten otsoak
zor dion saria,
atera zuelako
estutasunetik;
bestela an geldituko
bait-zan ura itorik.

Ikustean zigoñak
zerbait zuela nai,
otsoak esan zion:
—Adizazu anai;

ba'zoazke emendik
pozez, esatera
osorikan lepoa
dezula atera
gaur goizean, maitea,
zuk nere aotik,
eztañian mokoa
sartu ezkeroztik.
Ez dauka zori on au
nai duen guztiak
bakañik eman dizu
nere eztañiak.

Esakunak bait-dio:

“Egin ezazu on
“eta egin ezazu
“ez dakizula non;”

Otso gaiztoa beti
gure iges dabil,
bilduñez ez dezagun
atzeman eta il;
eta zigoña beñiz
bizi da gurekin,
ez bait-dizaioke iñork
añi gaitzik egin.

ITUÑIKO ORIÑA.

Nekez, baño arkitu
zuen iturña
orin batek, il nairik
zeukan egaña.

Ta edan zuanean,
gaxoa zan ari
urean begiratzen
bere buruari.

Ez da zeri par egin,
irakurtzaleak,
ba-zerate iñolaz
neskatxa gazteak;

jakin bear dezute
jaio ezkeroztik
ez duala oriñak
beste ispiñurik.

Guztiz edeña dala
zaio iduritzen,
batez ere adañak
dute txit txoratzen;
baña ditu arkitzen
aren mesedeak
txit itxusiak bere
zanko luze meak.

—Zanko laburagoak
baldin banituke
nere berdiñik — zion —
iñon nik ez nuke.
A! eman bazizkidan
gure Jaungoikoak
egokixeagoak
nere bi zankoak!—

Onela dagoala
mar-mar iturrian,
zaunkak aditzen ditu
ez txit urutian.

Laxterka asitzen da
mendra igotzen,
zakurak ondotikan
diote jafaitzen.

Iges egin duela
uste duanean,

gelditzen da loturik
otadi batean
nastu zizkiolako
bere bi adurak
otetikan-otera
an zegoan lurak.

Zakurak gañeratzen
zaizka gaxoari,
il eta bertan uzten
die nausiari.

Ora adar edurak,
ta zanko itsusiak:
oiek txit onak eta
aiek galgauriak.

Txoroa txoratutzen
dik itxura onak;
bañan inolaz ere ez
zentzudun gizona.





ADISKIDE BI ETA ARTZA.

Adiskide andi bi
dijoaz bidean
elkafekin izketan
goga-giro onean.

Artz aundi bat zaiote
basotikan irten;
ta ikaraz zugatzera
bata da igotzen.

Bestea gelditzen da
gaxoa bakarik
artz aundiari ezin
arpegi emanik.

Zer egin onelako
estutasunean?
Ila balitz bezela
jartzen da lufean.

Ta artzak, ez duelako
gorputz ilik jaten,

usai egin ondoren
da aufera joaten.

Bereala jetxitzen
da zugatzekoa
eta lagunagana
laisterka dijoa:

—Adiskidea—dio—
txit det nik atsegin

zu emen arkitzea
osasunarekin;

zer ikarak ditudan
zugatik eraman

bilduréz zu noiz artzak
bear zinduan jan!

Ixilik belarira

dizu ark itzegin;

zer esan ote-dizun
nai nuke nik jakin.

Ofa zer esan didan
artzak belafira:
"Gizonartean asko
"lagun-mota dira;

"Ez dezu artu bear,
"—jakizu gaurdandik—
"zure adiskidetzat
"gizon bildurtirik".

ARKLIMEA ETA OTSOA.

Bildotx gizen-gizen bat
dago artegian,
be egiten duala
amaren ansian;
belar-izpi bat ez zun
sabelean sartzen,
iru ardik esnea
zioten ematen.

Begira dagoala
ate ziritutik,
agertzen zaio norbait
mendiko aldetik;
artzaia zala uste
zuen lenbizian,
gero ikusi zuen
otsoa sasian.

Asten zaio ojuka
bañendik esaten:
—Jakin zazu itxita

naukatela emen;
au onela ez balitz,
emendik irtenik,
ez nezake nik utzi
otsoaren antzik.—

Otsoak izkuntza au
aditzearekin
dio:—Ez det goserik
kenduko onekin.
Babes ona duala
ezagun du ondo;
ez litzake bestela
ixekaz egongo.—

Askotan gizonikan
ikaratiena
da etxeko leiotik
oju-aundiena.

URDALA ETA GORPUTZAREN BESTE ZATIAK.

Ao eta begiak,
oin eta eskuak,
urdalarekin zeuden
txit asafetuak;
begiak esan zuten:
—Gu gau eta egun
or gabiltza jana nun
ikusiko degun.

Aoak zion beriz:
—Nere ortz-agiñak
kamusturik daukatzi
lan asko egiñak.

Oñak esaten zuten,
—Naiz ez izan gura
joan bear degu beti
jana dan lekura.

Azkenean eskuak
zeuzkan nekatuak
beti-betiko ezin
jan-ala bilduak.

Danak asafe ziran,
urdala bakafik
zegoala lanikan
egin gabetanik.

Egiten dute, bada,
danok batzafea

guztizko bizi eta
gutziz asafea,
eta bukatzen dute
esatearekin:

—Ez degu guk geyago
bear lanik egin!

Bata jan, besteak lan,
da erokeria;

urdalak eramaten
digu lan guzia.—

Esan zuten bezela
ba'daude geldirik
bi egunean lanik
egin gabetanik.

Asten zaie orduan
aitutzen indafa,
urdalak bafendikan
egiten du para.

—Zer da au?—esaten dute—
Zer zaigu gertatzen?

Indafa pixka bana
ari zaigu juten.

Orduantxe esaten
diote urdalak:

—Lengo antzik ez ditek
gaur gure masalak.

Nola nai dezute izan
ni gabe indafik,
zuek bildutakoa
urtutzen badet nik!

Ez dezute ikusten
ortz eta agiñak
erot-ari antzera
daudela egiñak?

Oiek txetzen dutena
nik dedala urtzen
eta gero danontzat
odol biurtutzen?

Ta ez ba-det nik artzen
egunero jana
zuen neke guzia
alper-lana dana?

Ofa nola egun bi
ozta igarorik,
zaudezten indar-gabe
eta erdi-ilik. —

Arazoi au aditu
eta ondorean

guztiak sartu ziran
beriz batzafean:
deitzen dute urdala,
antxen da lasterka;
artzen dute erdian
emanaz besarka,
eta esanaz:— Orain
diagu aitortu,
i bezin mutil latzik
ez dek iñon sortu.

Nork esan zezakean
ezkutuko lana
zala gorputzarentzat
beařena zana!

Askotan gutxiena
uste dan gizonak
egiten bait-dituzte
lanik beařenak.

Ta ontaz nai ba-dezu
ikusi egia,
irakufi ezazu
ufengo ipuia.

JAKINTSUA ETA NEKAZARIA.

Nekazari batek du
gizon bat ikusten
liburua eskuan
eta egurasten.

Biak elkafi zaizka
asitzen izketan,
lena nekazaria
izkera onetan:

—Ongi ona da, jauna,
beroñen bizia;
obe du ez dan jayo,
ez, nekazaria!

Guk egin bear degu
urte guztian lan,
beok bizi ditezen
aize-artu ta jan.

Ludi guziko gauzak,
ez dira berdiñak
izan afen guztiak
Jainkoak egiñak.

Zertarako dirade
beron liburuak,
ez ba-da nastutzeko
alperen buruak?

Kendu bear litzake
txit alperkeria,
orduan genuke guk
lanaren erdia.

Geroztikan giñake
askozaz obeki;
ez lirake izango
berok ere gaizki. —

—Adiskidea, dezu
ederki itzegin, —
erantzun zion —baña
bear dezu jakin
ez daudela lufeko
gauzak ain ez-berdin,

eta bazekiela
Jainkoak zer egin.

Buruak egiten du
lanikan geiena,
iduririk nekatzen
dala gutxiena,
eta esana dago,
baldin ba-da abila,
buru batek balio
dituela mila.

Esan zadazu neri
zuk, nekazaria,
nork erakutsi zuen
ereiten garia?
Nork elofi txurian
sagarra txertatzen?
Nork sagar-tolareak
zur-olez egiten?
Nork sortuak dirade
aitzura, goldea,
laia eta bost-ortza,
eta besabea?

Zu oean zurungaz
zaudenean lotan,
norbaitek bere gelan
asko gaberditan
lau bider nastu oi du
gogotik burua,
eskuetan arturik
bere liburua.

Asmatzen ba-du zerbait
gertatu oi dana,
gizonak egin dezan
efazago lana,
gelago egiten du
buruz gizon onek
ta ez bere esku guztiz
eun mila gizonak.

Begira irakiten
dagoan paziak
zein ezez eramaten
dituan ontziak,
naiz izan bere aurka
aize-mot guziak,
eta itsaso lodi
edo ur biziak.

Pazi bat ur berokin
ikus zazu nola
dabilen an erota,
emen beñiz ola.

Ezin egin duena
gure alegiñak,

egiten du pertzako
uraren lufiñak.

Lufiñaren indaia
ezagututzea
izan da buru baten
abilidadea;
argatik esaten da
buru batek mila
balio dituela
baldin ba-da abiia. —

Nor da beraz langile
ta indartsuena?
Ez gorputz sendoduna,
bai jakintsuena.

Tximist-indaiaarekin
mutiko kaskaak
menderatu ditzazke
Santson'en indaia.

Geiena dakitenak
gaurko egunean
idukiko dituzte
gizonak mendean.



LEOIA ZÁREZ ILTZEN.

Leoi aundi zar-zar bat,
ez il bai ilean
luze-luze etziñik
zegoen lufean:
urteen zamak zeukan
ezin ibilirik
gizajoak etzuan
iñun beste miñik.

Oñuaz mendiz-mendi
zanean lenbizi
abereak zebiltzan
argandik igesi:
bat bakañikan etzan
guztien artean
itxorongo zionik
iñolaz bidean.

Orain ikusirikan
etziñik lufean,

esan dedan bezela
ez il bai ilean,
an dijoaz laisterka
txiki eta aundiak
eta ito nai dute
gaxoa guztiak.

Zitalen kontua da
gaxoa danari
egin nai izatea
para eta iri.

Gizon zintzoak ez du
onela jokutzen;
gaxoenari dio
geyena laguntzen.

Ontan jakin nai ba-dek
legeak diona,
irakuñi zak ondo
Goiko Beñi Ona.

— 54 —

SUGEA TA LIMA.

Ozka ari zitzaion
sugea limari;
limak esaten zion:
— Alperik aiz ari;
ez dik ezer balio
ire alegiñak,
kamustuko dizkiat
ortz eta agiñak.

Itzikan egin gabe
ari zaio ziñez;
ez al dio utziko
ortzetako miñez.

Berandu baña noizbait
du ark ezagutzen
ortzak dijoazela
guztiak kamusten.

Uzten dio limari
txit damuz esanik:
— Askoz indar geiago
daukak nik baño ik.—

Erokeri aundia
dek, ai! nerekiko
akuloa jotzea
indárez ostiko.

TXANGURUAK.

Txanguñuak itz egin
zuten batzañean
aureka ibili obe
ez ote-zutean.

Atzeraka ibiltzea
ez da egokia;
pañagaña baizik
ta lotsagaña.

—Nork bere umeari—
danak esan zuten—
erakutsi bezaio
aureontz ibiltzen;
eman danoi oitura au
jaiotzen danenik
utzi gabe egiten
atzerantz oinkadik.—

Biaramon goizetik
omen-dira asten
umetxoai auferontz
ibilierazten,
atzapañak biguñak
zituzten artean
auferontz eragiñaz
atzerontz ordean.

Ari dira ba onela
ziñez gurasoak
egunoro zuzentzen
umeen pausoak;
baña alpeñik egiten
dute alegiña;

ezin garaitu dute
semetxoan griña.

Atzerontz ikustean
aita eta ama
ikusteak umea
atzetik darama.

Argatik txanguñuak
gaur ere dabilta
beti atzerontz afe!
sokagile-gisa;
esaten digutela:
—“Ez esan ez, egin
“nai ba-diok besteri
“edozer eragin”.

AITA BERE SEMEAREKIN.

Nekazari zar bat nik
ezagutu nuan;
ta nekazari onek
lau seme zituan;
laurak ziran langile
ta mutil azkañak
aiek lako mutiak
bait-dira bakañak.

Utsun bakar bat zuten,
bañan au aundia,

eta zan lauak elkar
ezin ikusia.

Etxean iskanbila
ikusirik, aita
txit motel egoten zan;
bidezkoa bait-da.

Jainkoak lagundurik
or egun batean
asmakari bat zaio
etortzen oian.

Beregana deiturik
esaten diote,
—Nere seme maiteak
adi nazazute;
—Ebaki zaidazute
makila me bana,
eta gero etofi
lauak neregana. —

Esana egin zuten
lau seme bipilak,
baita eraman ere
beren makil meak.

Orduan esan zion
seme bakoitzari:
Puskatu bear didak
makil ori neri. —

Laister zuen bakoitzak
berrea puskatu,
lan onek ez zituen
txit asko nekatu.

—Ora—esaten die —
Ora zein ezezki

bakoitzak egin duen
makila bi erdi.

Orain beste lau makil
bear dira lotu,
eta dauden bezela
batean puskatu. —

Egiten dute sorta
beren makil txaraz;
ezin puskatu dira
lauroen indaraz.

Orduan zien aitag
lau semeai esan:

—Ora nere semeak
elkartea zer dan;
izaten ba-zerate
elkarrekin etsai,
zuek garaitutzeko,
askoko da nor-nai;
baña makil antzera
elkarturik ongi,
ez dituk gai izango
zuentzat amabi.





ARATOI ETA SAGUEN BATZARA.

Zapiron il ezker
sagutxoak alai
bizi ziran, geroztik
beti bait-zuten jai.

Eta beste katuen
bildurikan gabe
ziraden beren etxe
guztia-aren jabe.

Bañan ilobatxo bat,
txit mutil sendoa,
Zapiron'ek ba'zuen
bere antzekoa.

Urteak egin zuen
guztiz eiztaria;
egunero ba'zuen
lanaren saria.

Ernaia zan, gogofa,
gañera katafa,

bere aitona bezin
mutiko azkafa.

Goizean, aratsean,
ordu guztietan,
usaika an zebilen
beti zokoetan.

Ez zuten sagutxoak
besteen bildurik;
izutzen zituana
auxe zan bakarik.

Iñoiz estu-estuan
arkitzen ba-ziran,
beste edozeñekin
burukatzen ziran.

Eta omen-zituzten,
ala det aditu,
bein baño geiagotan
zenbait elbaritu.

—Katar deabru ori
baldin iltzen balitz,
—esaten zuten—ongi
ginduzkek gu agitz;
ikusia zeagok
ziurki bestela
ezin biziko gaituk
luzaro onela.

Atera nai ba-degu
jatera zulotik,
an diagu gañean
ortzak agerturik.

Ez bagerade beriz
irteten lenbaitlen,
sañi asiko gaituk
elkar jaten emen.—

Oien artean zan bat
bizi aundia,
bizar-luzea, eta
txit ile-zuria.

Urte asko zituen,
zan asko jakina,
mairan jan izan zuen
lau bider irina.

Onak esaten die:
—Ba'ziakiat nik
nola gindezkean gu
atera emendik.

Baita ere biurtu,

zein ta dan azkara,
egiten diogula
ixeka ta para.

Bein baño geiagotan,
ikusi dedanez,
lo egiten dik beti
katarak egunez.

Lepoan txilintxo bat
ipintzearekin
iges egiten eraz
dek soñuarekin.

Lokariaz lotutzen
ez dek gaitz lepoa,
nere ustez aztuna
bait-dik orek loa.—

Guztai zitzaieten
ongi iduritu,
baña inork ez zuen
beretzat aditu.

Batak esaten zuen:
—Ni nago gogora,
besteak ni itxua,
besteak, ni gora.

—

Edonork ematen du
iritzi aora;
baña, nork du egiten?...
Or zegok ba "axkora".

ANTON ETXE-GALGARÍA.

Ustez beti jardungo
zuela lanean
ogibide batean
ez ba-zan bestean
artu zituan Anton
etxegalgaríak
ogibide mota asko
edo-ta guztiak.

Arotzaz gañera zan
efementaria,
argiña, kapagiña
eta dendaria;
gero beñiz gañera
zan zapataria,
itz batean Anton zan
bear zan guztia.

Ezin esan diteke
aren aundinaia
ezta ere efikoen
ezin-ikusia.

Bere auzoan zuen
gizon bat argia,
izengoiti-jartzañe
guztizko aundia.

Onek esaten zuen

karíkan, perian,
lagunakin arkitzen
zan toki guztian:
—Apostura egingo
diot edozeñi,
eta, ala nai ba-du
Anton'i berari;
asmatzen dedala nik,
zer zaion gertatzen
lau urteren bañuan,
ez bada len iltzen.

Ez du jatekorikan
izango etxean,
ez ere jakirikan
sartzeko eltzean.

Ogibide bat ongi
bear da ikasi;
ez mila ogibide
eta milak gaizki. —

Oraindikan lau urte
ez ziran igaro,
onek esan zuena
ikusi zan gero.

Anton'ek ezer ongi
ez zuen egiten,

— 60 —

eta asi zitzaion
jendea uritzen...

Andikan laister beriz
ez zuan inondik
ilabete osoan
egun biko lanik.

Auzokoak esaten
zuten orduantxe,
sari asiko zaigu

Anton etxez-etxe.

Argatikan beñere
ez da bear aztu:
Bi ogibidek inor
ez du aberastu,
eta bitatik gora
dituzten guztiak
izan oi dira beti
etxe-galgariak.

ATSOA TA ARKAKUSOA.

Gure goiko bizitzan
bizi zan atsoa
zan elizarakoia
zan jaungoikozkoa.

Beti mar-mar zegoan
etxean; elizan
beti Paternostera
esaten ari zan.

Ez zituen utzitzen,
zer nai gerta zedin,
naiz kataroa izan,
naiz sabelean min,
eguneroko meza,
erosarioa,

eta bezper-ondoren
zan kalbarioa.

Baña zuen gaxoak
eraman txikia,
edozein gauzak zuen
estutzen guztia.

Egun batez ari zan
erabiz atsoa

ezin arapaturik
gonan kukusoa.

—Zital orek ez didak,—
zegoan esaten,—
oan, ez kanpoan,
pakerik ematen.



Ez diat igarotzen
beñere egunik
Jaungoikoari otoitz
egin gabetanik.

Ire ortzetatikan
utzi nazan aŕen
ala edo onela
ni lasai, lenbailen.—

Itz oiek aditzean
nengoan pentzatzen
zer gauzak Jainkoari
ziozkan eskatzen.

Entzuten det onetan
negar intziria,
laxterka noa gora;
odolez bustia
arkitzen det atsoa
etziñik luŕean,
alkitik eroria
sukal-bazteŕean.

Bizkor igotzen zaio
gonatikan gora,
arkakuso gaiztoa
geŕitik lepora.

Atzera egin nairik
iges egiteko,
eta gero luŕean
oñakin iltzeko.

Erori ta jo zuan
buruz su-burnia,

eta idiki zion
buruan zauria.

Orduko aren oju
eta deadaŕak!
Gañera ark egiten
zituen negaŕak!

Ordu bi gutxienaz
egon zan onela;
zirudien laŕua
kentzen ziotela.

Negaŕak utzi eta
asten da atsoa,
“aŕa” eta “demoka”;
kukuso gaiztoa
iges jun bait-zitzaion
eta aŕatsean
bildur zan izan zezan
berekin oean.

Au da gertatzen dana
kristau askorekin,
ezin duten orduan
nai dutena egin.

Bañan oker dabilta
diranak gaixoak,
gizonak, agureak,
andreak, atsoak
baldin uste ba-dute
gure Jaungoikoak
entzungo dituela
aien eŕezoak,

igesi bialtzeko
udan kukusoak
ez ba-dira garbitzen
etxeko zokoak.

Gure otoitzak dira
gauza txit edeñak,
ez ordea bagera
otoizle alpeñak.

Erezoak egiten
diran bitartean,

jardun bear du beti
bakoitzak lanean.

Ez ba-degu ereiten
soroan azia,
ez zaigu etofiko
zerutik garia.

Eta zikin ba-daude
etxeko zokoak,
ez dira izango uruti
tximitx-kukusoak.

ASTOA ETA IGELAK.

Asto bat zijoan bein
egur zamarekin
gogorapen ilunak
egिñaz berekin.

Bide luzea zeukan,
aztuna zan zama;
ogei urte ba'ziran
il zala aren ama.

Gañera zeukan guztiz
aundia gosea;
ez zan aritzekoa
ilun joatea.

Zingiradi batean
ora non dan sartzen

eta ařantz egiñaz
asten da esaten:
—Madarikatua, bai,
beti-betikoa,
gaizkiñak eman didan
zorigaiztokoa!

Au entzutean ango
igel kantariak
itxi omen zituzten
beren belañiak
ez aditzeagatik
aren deadañak,
bestela lertu gaizto
nai zituan pañak.

Batek esaten dio
saietsera junik:

—Ez dago emen, jauna,
iges egiterik;
ona gu ere nola
geran emen bizi:
jaio giñan ezkeroz
ez degu ikusi
beste gauzarik, baizik
loia eta ura,
ez izanagatikan
gu oietxen gura.

Jainkoak onelaxe
bait-dauka agindua;
ez balitz bezela da
guretzat mundua.

Eta jakin bear du
zure Mesedeak
milaka diotenez
dirala abereak
bizitzen diradenak
lurpean sarturik,
ikusten ez dutela
sekulan argirik.

Aiek beti pozikan
omen-dira ala;
ez degu izan bear
guk ere onela?
Bai, daukagun beti guk
gogaldi alaia,

berdin, ezingo degu
egin gure naia.

Neurtzen ba-degu gure
ta aien izaera
gurearekin pozik
geratuko gera.

Au da gertatzen dana
lufeko gaitzakin,
baldin neurtzen ba-dira
aundiagoakin.

Zu emen zaude orain
zingiran sarturik,
eta ateratzeko
ez dezu kemenik. —

Birauka asitzen da;
bañan:—Txito, txito—
igelak deitzen dio—
begirozu ito.

Gaur zure ez-beaia
guztiz da aundia,
baña ez da oraindik
galdua guztia.

Ba'da bide bat eta
da eramapena
oker aundia txiki
egiten duena.

Norbait etofiko da
ortik edo andik,
lagunduko dizuna
irteten emendik.—

Au aditu ondoren,
aren Mesedea
asi zan pixkabana
artzen asnasea.

Egon zan geldi-geldi
aldi bat luzean;
gañeko zamak zeukan
uraren gañean.

Indaŕak zitzaizkion
pixkaka etofi,
eta irteteko gai
ofa non zan jafi.

Zingiratik bidera
atera zanean,
astoak esan zuen
bere baŕenean:

—Entzun izan ez banu
igelen esana,
galdu nuan gaurgero
bizitzeko lana.

Loitan jira ta bira,
aŕas nekaturik
zingiran geldituko
bait-nintzan itorik.

Ez daukat azturikan,
ez, eramapena,
oker aundia txiki
egiten duena;
eta mundu onetan
nai duena bizi,
zer nai gerta dakion
ez dezala etsi.

ASTOA ETA TXAKUŔA.

Asto bat zamatua
zofo aundiakin
zijoan azokara
nagusiarekin.

Etxeko artzanorak
naiz bai, naiz ez deitu,
beti-beti ondotik
oi zion jafaitu.

Jun-da-jun eldu ziran
itzal izkutura,
ta nagusiak zuan
nabaitu logura.

Gelditzen du astoa
bide bazteŕean,
an bazkatzen dabilen
bera lo artean.

Etziten da soroan,
asten da zurungaz,
oroitu gabetanik
astoz ez txakuraz.

Bazebilen astoa
soroan bazkatzen,
eta txakurak zion
atzetik jaraitzen.

Baña aizkenik goseak
txakura ukitu
eta astoari onela
zitzaion mintzatu:
—Zoro aundi oietan
ba'zegok janari:
pixkatxo bat, maitea,
berontz makur adi.

Bañan astoak—nunbait
belañez asea—
ezin aintzat arturik
besteren gosea,
diotsa: —Ni makurtu
iretzat?.. Ja-ja-jai!

—gosez ilko naizela?

—Gosez? Naiba-dek, bai—

Onela dabiltzala
asare mintzatzen
leoi bat basotikan
zaie ateratzen.

Artzanora lasterka
badijoa andik
utzitzen duela an
astoa bakañik:
onek egiten dio
ari deadara,
ark beñiz urutitik
egiten du para.

Asto gaxoa il zan,
ez da zer esanik
zer ikasi eder au
guztioi utzirik.

Besteak laguntzea
guri nai ba-degu,
guk besteai lagundu
bearko diegu.

ERLIKIDUN ASTOA.

Asto bat zamatua
Santu-gorpuzkiñez,
ba'zijoan, iñuntxo
kabituz eziñez;
ikusten zutenean
onela igarotzen
belauniko bait-ziran
bereala jartzen.

Eta bide-zitzaion
buru artan jañi,
egiten ziotela
belauniko ari.


Argatikan zeraman
guztiz goratua
eta aizez betea
gaxoak burua.

Onela ikusirik,
esan zion batek:
—Agur oiek iretzat
dirala uste dek?
Ederki eman ere!...
Zer? Eta astoa

gurtu gizonak... Ja-jai!
A zer jaungoikoa!!
Makurtu-ezak ire
aizezko burua;
ez dituk agur oiek
iretzat, kaikua.
Ez dakik daukakela
kutxa bat gañean
Santu-kutsuz betea
ire bizkañean?—

Amaika asto ba'dago
gizonen artean!
Arkitzen diranean
goi-mala batean,
ezin siñetsi izaten
du aien sudurak
ez diranik aientzat
gizonen agurak.

Bañan gero jeistean
lengo maladira
len bezain asto beriz
an arkitzen dira.



TXOÁREA ETA ERBIA.

Afano batek zuen
erbi bat atzeman,
eta zeukan itotzen
bi atzapařetan.

Txoáre batek, ustez
toki girizitik
oju egiten dio:

— Esaten ez dek ik
ez dala lur gañean
arkitzen mutilik
laisterka ire añean
jun ditekeanik?

Orain zertan ago or,
erbitxoá, geldi
ofen mutil ariña
aizen ezkeroz i?—

Onela itz egiten
dion bitartean,

gabirai bat gañera
dator bat batean;
artzen du txoárea
ařen atzapařak
kentzen dizkio lengo
ixeka ta pařak.

Iñork mundu onetan
ezin dezake esan
ur onetatik nik
ez det bear edan.
Usterik gutxiena
guk degun orduan
arkitu oi gerade
besteen lekuan.

Ořegatik iñoren
zori makur txařaz
ez genduke egon bear
ixeka ta pařaz.

LEOIA ETA ASTOA.

Leoi andi bat zan bein
goizetik atera
asto bat bere lagun
arturik, eizera.

Artzai-txabol batean
uzten du astoa,
bidetxigor batera
bera badijoa.

Astoak bear zuen
andik aiantz egin,
leoiaganontz eiza
guztia jun zedin;
gogoz egiten bait-du
astoak aiantza,
ba'du leoi beraren
ofoaren antza.
Abereak an dabiltz
batetik bestera;
ta gero an dijoaz
bidetxigofera.

Astoak sartu zien
ikara-bildura!
Ez bait-zuten ikusten
begiz ere lura.

Leoiak jaten ditu
ta utzi ezurak,
usaiez ase ditzan
astoak sudurak.

Ezurak ikustean
esan omen zuen:
—Pixka bat lentxiago
egon banintz emen.
Ez nuen, ez, utziko
bakar bat bizirik,
ez zezen, ez katamotz,
ez otso, ez artzik.—

Aditu zuanean
bere arokeria
leoiak egin zuen
algara aundia.

Onen sabela betea
gelditu zan eizez,
astoarena beriz
len bezela aizez.

Pafa eragiten du
gizon bildurtiak
esaten asten ba-da
bere ausartiak.

TXIMUA LOTSETAN.

Egazti eta a'ai,
abere guztiak,
deitu omen zituen
Jupiter aundiak,
ta esan omen-zien
par-iñiarekin:

—Zertarako zatozten
beazute jakin.

Umerik edeñena
dakarkidanari
emango diot nik gaur
ol xabal bat sari
zilañezko izkitan
esaten duena:

—Guraso guztietan
au dek bizkoñena. —

Badijoaz laxterka
guztiak etxera
beren umeak artu
eta ekartzera.

Biurtutzen dirade
guztiak batetan
dituztela umeak
bere bizkañetan.

Tximuak erakusten
du bere umea,
jaio beña eta
gañera emea.

Jupiter asitzen da
eztanda egiten
duenean alako
jostalua ikusten.

Lertu nai dute baita
abere guztiak
pañaz eta algaraz
txiki eta aundiak.

Tximu gaxoa guztiz
zaiote lotsatzen
eta Pekin'era da
andik iges juten.

Nolatan ausartu da
ara eramatera
ume itsusi ura
guztien auñera?

Ez bait-da iñun ere
ume itsusirik
bere gurasoentzat
edeña ez danik.

JUPITER ETA ASTOA.

Jupiter'i bein joan
zitzaion astoa
esanaz nagusia
zuala gaiztoa.
—Ez dakit—esan zion—
nola dan astorik
baratza-zaia, nausi,
izan nai duenik.

Egunero narama
zeiera berekin,
aza, poñu, tipula
eta letxuekin.

Oiek saldu ondoren
biurtzen naiz nekez
guztiz zamaturikan,
etxera, gorotzez.

Ezerere jan gabe
nabil erdi ila,
goitik bera sumatzen
dedala makila. —

Astoaren negaiez
jauna da kupitzen,
eta telagin bati
an dio bialtzen.

Laxter biurtzen zaio
beriz Jupiter'i,

esanaz:—Telagiñak
iltzen narabil ni.
Jan gutxi ematen dit,
makilkada asko,
nunbait autsi nai dizkit
bizkar eta kasko.

Emen nator, beroñi
beriz eskatzera,
añen! bidal nazala
beste etxe batera. —

Lañu-zale zar bati
bidaldutzen dio;
astoari obeki
ez dijoakio.

Biurtu zan lasterka
zer-esanarekin
eta jaunari zion
onela itz-egin:

—Jauna, lañu-zaleak
zamatzen nau eñuz
egunero idi, bei
eta zaldi-lañuz.

Nere uste guztiaz
arek nai duana
ni zamaren aztunez
iltzea da, jauna;

— 71 —

bai eta nere lafu
eze, gozoakin
zagi leun, potxolo ta
biribil bat egin.—

Jaunak, entzunik aren
itz negargafiak,
itxi zituan oso
bere belafiak.

Esaten ziolarik:
—Emendik auffera
ez datoñela iñor
negar egitera;

ez nau iñortxok ere
berdin limurtuko
beren zoriarekin
dira geldituko
asto eta txefiak,
mandoak, zaldiak,
gizon eta abere
diraden guztiak.—

Askok du obe-etsitzen
bere zoriona
baño, Jaunak besteri
ematen diona.

SENDAGİLE ITZONTZIA ETA ERIA.

Eri bat guztiz gaizki
zegoan oiean,
eta mingaña ondo
ikus ondorean
asten zaio esaten
sendalari jauna:
—Txartzen dijoa, txartzen
zure osasuna:
odol-taupada argalak
esku-mutuñean
ta eun taupada, beñiz,
“Aitaren” batean....

Sendatu ziñalako
ziñan nunbait poztu
eta zerbait jan dezu
edo zera oztu.
Alpeñik ukatuko
didazu zuk neri;
zerbait onelakoxe
gerta zaizu zuri.
Bestela, eñex gero!
onezkerotandik
aterako zindudan
gaiz onetatik nik.

Mila atera izan ditut
nik nere denboran;
etzait bat bakafikan
eskutatik joan.
Gauzarikan onena
izango da emen
zure aitor-apaiza
deitzea len-bait-len.
Ongi dakizu, inork
esan gabetanik,
ez dakafela inoiz
gauza onak gaitzik. —

Asafetu zaio
onetan eria,
eta esaten dio:
—Beritsu aundia!
Zertan ari zera zu
or aitzaki-bila?
gaitz onetatik zuri
il zaizkitzu mila.
Ez det jan, ez naiz oztu,
ez det itz bat egin
ez orain eta ez len,
ez bada zurekin.
Zure betiko itza
eta erausia,

jakizu asko dala
iltzeko eria.
Zure aitzakiakin
zoazkit ortikan;
ez det nik sendatzeko
zure beafikan.
Beti esan didazu
ezer ez dedala,
eta orain diozu
gaizki nagoala?
Badaki nik zer dedan,
ez nago ain gaizki,
erausi gutxirekin
jafiko naiz ongi. —

Burua makurturik
gizaxoa jun zan
eta gero eria
laister sendatu zan.

Itz gutxi, zentzu ona
ta begi azkara:
oiek ez dituana
sendalari txara.

Ta sendalarietan
bizkor ta onena
grina txar danai gogor
egiten diena.



AZERIA ETA MATSAK.

Zintzilika daudela
ditu azeriak
ikusten mats-mordoak
eldu ori-oriak;
jartzen da begiraka
gaxoa goseak,
bařena ibiltzen zaio
jateko zaleak.

Saltoka asitzen da
alegin guztian,
ordu bian ba-dabil
ezin iritxian.

Ikusi zuanean
etzuola artzerik

matsai esan zien
begiak jasorik:
— Zaute, zaute, mordoak,
zaute ostopean,
etzerate oraindik
jaři sasoiean. —

Zerbait nai eta ezin
ba-degu iritxi
azeriak bezela
bear degu utzi.
— Zaude, zaude, esanaz,
zaude or berean,
oraindikan etzera
jaři sasoiean. —

MANDO ZAMATUAK.

Bi mando zijoazen,
biak zamatuak
bata eta bestea
elkari lotuak,
bata zijoan guztiz
ederki jantzia,
txirimil ta txintxariz
betea guzia.

Lepotikan zintzilik
zeukan joaleak
airean oi zituan
iduki kaleak.

Ure-zama zeraman
arek bizkarean;
ba'zan nork-begiratu
aren baztanean.

Bestea lotsaturik
zijoan, asarez,
zamatu zutelako
zaku-garagaraz.

Baňan irten zaizkie
lapurak bidean...
mando ederagana
zuzen zuzenean.

Asten da ostikoka

egiňaz ifintzi,
eta alderatutzen
ez die nai utzi,
bildurez geldi dedin
zama eder gabe
ta nausiaren esker
gaiztoaren jabe.

Baňan zizpa bai-zuten
lapurak berekin
il eta joan ziran
ure danarekin,
ukitu ere gabe
bestea utzirik.

Au ikusi ondoren
bigarren mandoa
onela mintzatu zan:

— Ene Jaungoikoa!

Bijoa impernura
urezko jantzia,
laburtu bear ba'dit
onela bizia.

Naiago det eraman
askoz garagara,
ez urez zamatua
ibili bizkara.

LEOIA ETA SAGUA.

Leoi batek atzapar
aundi zořotzetan
sagutxo bat zedukan
guztiz naigabetan,
ez jaten ziolako
ezer jatekorik
gabez loa galazten
ziolako baizik.

Ordu guztietako
aren ibiliak
ez bait-zion, ba, uzten
itxitzen begiak.

Negafez asten zaio
barkapena-eske;
ta uzten dio esanaz:
—Ořa, ba'oake.—

Ozta ilabete bat
oraindik joan zan
ořa non leoi bera
sárean jausi zan.

Asitzen da egiten
eun-da alako ořuak,
ikaratzen bait-ditu
ango inguruak.

Azkar ezaguturik
ořutik piztia
an jun zitzaion gertu
sagutxo txikia.

Ortzaz bereala du
aria puskatzen
eta sare guztia
orlaxe uratzen.

Nork esan leoiari
iñoiz ta iñola
sagu bati bizia
zor bear ziola?

Argatikan munduan
zerbait izan ařen,
ez daki batek noren
bear izango den.

OTSOA ETA ARTZANORA.

Otso andi bat
mendiak gora
zijoala goiz batean,

artzanora aundi
sendo zabala
arkitu zuan bidean;

zeuden lekuan
gelditu ziran
biak alkar ikustean.

—Adiskidea,
—dio otsoak,
agur aundi bat egiñik—
noiz ezkeru zu
onen goiz emen
zure ardiak utzirik?
Eztezu ez gaur
zergatikabe
alde egin orla artaldetik.

Artzanor oñek
erantzun zion:
—Nai nuke nik zurekin
bizi dezagun itz egin;
zuk nai ba-dezu
nere aldetik
izango nuke atsegin. —

Ikusi zuen
otso aundiak
lepauztai zabal
iltzez betea
zeukan zakurak lepoan;
aretzekintze
burukagiten
atsegin ez baizegoan.

Lotsa zan baño
bildur geiago
bere bañenen nabairik,

poz ori bera
—erantzun zion—
gaur bertan izan nai det
ementxen bertan [nik]
izan ez dedin esparik.

—Iduritzen zait
—dio zakurak—
guretzat askoz obea
len degun baño
obeto elkar artzea
bat besteari
esanaz beti:

—Agur, zu, adiskidea.
Nork izango du
esan zadazu
elkarantzat gorotoa
beti bañenen
idukitzeko
gurari eta gogoa;
ta letaginka
puskatutzeko
alkari noiz nai lepoa?
Ez dagokio
beste aldetik,
esan bear da egia,
zu bezelako
indartsu bati
indargabeko ardia
il-ta jatea;
ez da iñundik

ori gauza egokia.
 Zuretzat askoz
 egokiago
 lirake basa-abereak,
 leoi, katamotz,
 azari, artza,
 azkonar ta basurdeak:
 oiekintxe zuk
 bear zinduzke
 egin indar-neurtzeak.—
 —Alaxe dezu—
 —dio otsoak—
 indaŕik ez duenari
 lotsagaŕi da
 gaitz egitea
 ta ez uztea bizirik;
 ez det geiago
 olakoakin
 nik iduki nai konturik.
 Ematen dizut
 itza egiaz,
 ez naizela ni auŕera
 joango emendik
 zuen alderontz
 zure ardiak jatera,
 baizik zuei
 eskumuñ egin
 eta aginduak artzera.—

Orduan elkar
 diosaldurik
 biurtu ziran etxera
 bata-besteren
 bilduŕik gabe
 lasaiki arnas artzera,
 ta ardura txafik
 bat ere gabe
 zabalki lo egitera.
 Egun batzuek
 igaro eta
 asi zan ardi zenbatzen
 eta artzanorak
 ikusirikan
 ari zirala bakantzen,
 len bezin beŕi
 asi izan zan
 egun eta gauak galtzen.
 Gaitz egiteko
 griña gaiztoa
 batek badakar jatoŕiz,
 gaztetandikan
 ez badu uzten
 gaitza egingo du beŕiz,
 naiz bere itza
 eman dezala
 mila eta mila aldiz.

MENDIA AURGITEN.

Turmoiak ortik,
tximist emendik
ikusirikan jendea,
egun batean
bide-zegoan
aías belduñez betea,
eta egiaz
etzan ez éraz
bildurik gabe egotea.

—Ez da besterik
esaten zuten
luraren azken-eguna
da ekaitz onek
gaur aditzera
guri ematen diguna;
bear bezala
gertatutzeko
egin zagun al-deguna.—

Onetan norbait
badator, eta
oía non duen esaten,
txit urutian
mendi aundi bat
omen dagoala aurgiten,
onetarako
deadar aiek
dituela ark egiten.

Ikara utzi
alde bat eta
zer gauza aundik
bear ote-dun
atera aŕen bafendik
gauza txikirik
ezin bait-da irten
mendiaren éraietik...
sagu txiki bat atera:
au aditu ta
guztiguztiak
juan ziran paŕez etxera.

Onela gerta
oi da kristabak
maiz urutiko gauzakin,
argatikan guk
bizi gaitezen
gure esakun zafakin
ez gaiten geldi
asko bezela
gero txalma aundi bate-]
Egiñagatik [kin.]
intxaufak soñu-
-tzar aundiak urutira
alderatu-ta
askotan intxaur
txikiak izan oi dira.



AIZKORA ETA KIRTENA.

Egurgile bat
sort- egitera
jun zan basoan bařena,
eta bidean
galdu zitzayon
aizkoratikan kirtena.

Sort-egiteko
beste beři bat
egin nairik aizkorari,
gaya eskatzen
asi zitzaion
ango zuraitz bakoitzari.

Iñork etzion
gairik eman nai
eta arteak bakařik
adar metxo bat
eskeři zion
gaxo artaz kupiturik.
Kirten beřia

egin ondoren
sartzen dio aizkorari
eta zartaka
or asten zaio
arte arixen berari.

Au ikustean
asten zaizkio
zumařak eta lizařak
arte onari
gogor egiten
oju eta deadařak.

—Asto aundia!

—esaten dute—:

ez al-ekian oraindik
egurgileak
bizi dirala

guk galtzen degun bizi]
Ořa zer esker [tik?]
ematen dian;

orain asi dek igandik,
laister ez gaitik
bat bakafikan
basoan utziko 'zutik.
Iri bakafik
egin ba-zian,
kaikutzar ofi, kaltea
ezer etzuen,
baña guretzat

ez dek izango ohea.

—

Bere etsaiari
eman ba-dio
noizbait norbaitek eskua,
len edo gero
ikusiko du
galdurik bere burua.



ARKIBIDEA.

	<u>Oñiak</u>
Aurē itzak	III
Euskaleñiko gaztediari	1
Katu biak	3
Erēmentaria ta txakura	5
Txakur biak	7
Itz-ontzia	9
Otsoa ta arkumea	11
Etxe-sagua ta soro-sagua	12
Esne-saltzalea	15
Astoa ta txefia	17
Beñitsua	19
Abereak izuñiarektn	21
Azeria ta oñoa	24
Txitxara ta txinguria	25
Igelak eñege-eskean	27
Asto-burugogora	30
Belea eta azeria	32
Oñara eta azeria	33
Auntzak eta akeñak.	35
Leoia ta tximuak	37
Sugea eta nekazaria	39
Euliak	40
Añantzalea ta añaia	41
Artzaia eta ardiak.	43
Otsoa ta zigoña	44
Ituriko oriña.	45
Adiskide bi eta artza	47
Arkumea eta otsoa	48
Urdaia eta gorputzaren beste zatiak.	49
Jakintsua eta nekazaria	50
Leoia zañez iltzen	53
Sugea ta lima	54
Txanguñuak	54


	<u>Oriak</u>
Aita bere semearekin.	55
Afatoi eta saguen batzara.	57
Anton etxe-galgafia	59
Atsoa ta arkakusoa	60
Astoa eta igelak	62
Astoa eta txakura	64
Erlikidun astoa	66
Txoafea eta erbia	67
Leoia eta astoa	68
Tximua lotsetan	69
Jupiter eta astoa	70
Sendagile itzontzia eta eria	71
Azeria eta matsak.	73
Mando zamatuak	74
Leoia eta sagua	75
Otsoa eta artzanora	75
Mendia aurgiten	78
Aizkora eta kirtena	79


IDAZTI ONTAN EGIN DIRAN UTSEGIÑAK.

DIO:

IRAKURĪ BEAR DA:

- | | | |
|-------|---|--|
| 14'g. | orian: sabela bait zeukan antxe | — sabela bai zeukan ark. |
| 69'g. | » ol xabal bat sari | — lepauztai bat sari. |
| 72'g. | » asaretu zaio | — asaretutzen zaio. |
| 73'g. | » matsai esan zien | — matsai esaten zien. |
| 76'g. | » —Nai nuke nik zurekin
btzi dezagun itz egin; | { nai nuke egon nik zurekin }
aurera nola
bizi beagun
blok dezagun itzegin. |
| 78'g. | » Ikara utzi
alde bat eta
zer gauza aundik | { Ikara utzi
alde bat eta
guziak daude ixilik
zer gauza aundik |
| 78'g. | » mendiaren eraietik...
sagu txiki bat atera: | { mendiaren eraietik.
Badator norbait
berri aundia
guztiai ematera:
mendi barengo
sabeletikan
sagu txiki bat da atera; |







Lopez-Mendizabal'en Irarkola.

Saneuría: 1,50